

# TOKIKOM SARIAK 2016. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

TOKIKOM SARIAK 2016 deialdira aurkeztu diren 104 proposamenak banan-banan sakon aztertu ondoren, epaimahaia osatu duten **Alazne Aiestaran Yarza, Gaizka Aranguren Urroz eta Goio Arana Arrieta** jaun-andreek, idazkari lanetan jardun duen Joxe Rojas Granjaren laguntzaz, ondoko hau

## ERABAKI DUTE:

**1.- Nabarmentzea sarietara aurkeztutako lanen kopurua, aniztasuna eta kalitatea.** Hiru alderdi horiek ezustean hartu dute epaimahaia, baita (onerako) harritu ere: euskarri, estilo eta eduki oso anitzeko lanak aurkeztu dira, ageri-agerian utziz toki komunikabideetan ideiak behintzat ez daudela faltan. Zentzu horretan, epaimahaiak **zorionak eta eskerrak eman nahi dizkie lanak aurkeztu dituzten komunikabide guztiei**, eta aukera aprobetxatu nahi du ideia eta bide berriak esploratzen jarrai dezaten.

2.- Hala ere, sariak emateko aukeratu egin behar denez, epaimahaiak erabaki du honelaxe banatzea 2016ko TOKIKOM SARIAK, toki komunikabide guzti-guztietan egiten den lan eskergaren aitortza, eta hobetzen zein bide berriak aztertzen jarraitzeko pizgarri suertatuko direlakoan:

### **PORTADARIK ONENA:**

**Uribe-Kostako HIRUKA** astekariak 2016ko uztailaren 7an argitaratutako *"Txonbo egin!"*.

Uribe-Kostan eta Bizkaian erabiltzen den bertoko esamolde batetik abiatuta (*"txonbo egin"*, uretan murgildu), oso era grafikoan garatu zuten portada, udako ale bereziaren ezaugarriekin eta beti ere bertoko erreferentziekin lotzeko.

Azalareren txukuntasuna ez ezik, aipatzekoa da ere udako zenbaki horretan argitalpen osoak hartu zuela formatu berezia, ohikoa baino erabilerrazagoa eta 'gordegarriagoa' izateko. Izan ere, eskualdean ez dago beste argitalpenik, udako jai guztien informazioa batzen duenik, eta edukiaren izaera berezi hori oso kontuan hartu zen hala azala nola zenbaki osoa diseinatzeko orduan.

Azkenik, bistakoa da ere azal horretarako, eskualdeko herri batean eta bertoko protagonista batekin propio egindako argazkiaren kalitate tekniko handia, emaitza ikusgarri bezain deigarriekin.

**EDUKIRIK ONENA:**

**Usurbilgo NOAUA astekariak 2016ko maiatzaren 13an argitaratutako  
"Udarregiren omenez" gehigarri berezia.**

Herriko efemeride batetik abiatuta, NOAUako lantaldeak garaiko euskal kultur gintzaren argazki panoramiko ezin osatuagoa eskaintzen du gehigarrian, sasoiko artea, bertsolaritza, Ez Dok Amairu eta beste hainbat elementuren egoera gogora ekarriz.

Aparteko aipamena merezi du, gainera, gehigarrian aurki daitekeen Rikardo Arregik Usurbilen orain 50 urte egindako hitzaldiaren transkripzioak. Transkripzioaren beraren balio historikoagatik, batetik; baina baita Arregiren hitzek gaur egun ere duten izaera iraultzaileagatik.

Epaimahaiak azpimarratu nahi du gehigarria bera zein bertako material grafikoa lortu zein dokumentatzeko lanaren balioa. Argazkietan ageri diren pertsonaien identifikazioa, irudiak eurak lortzea... meritu handiko lana da zalantzarik gabe. Gehigarriaren diseinuak lanketa pausatuagoa behar badu ere, eduki testuala zein grafikoa balio handikoa da, eta argi erakusten du nola lor daitekeen interes orokorreko eduki bat, oso tokiko gertaera batetik abiatuta.

**IKUS-ENTZUNEZKORIK ONENA:**

**Debagoieneko GOIENA TELEBISTAK 2015eko urriaren 23an emititutako  
Barruak astintzen dokumentala.**

Arrasateko San Juan de Dios Ospitalea eta Arizmendi Ikastolarekin elkarlanean egindako dokumental honek lehen eskutik azaltzen du lau egun elkarrekin pasa dituzten ikasleen eta buruko gaixotasuna duten pertsonen esperientzia.

Epaimahaiaren aburuz, lehen eskuko testigantza horiek dira dokumentalaren balio handienetakoa: ikasleak eta gaixoak eurak dira kontakizunaren protagonista, eta horrek indar handia ematen dio, tratatzeko gai delikatua dena behar den patxadaz eta naturaltasun handiz azalduz

Alde teknikotik ere, oso kalitate handia du lanak: irudia, musika, gidoia, oso ondo landuta daude, eta oso produktu interesgarria lortzen dute, ikuslea 'ukitu' egiten duena. Produkzio aldetik ere lan handia du dokumentalak, batez ere lekukoekin eta haien arduradunekin kontaktatzen.

Epaimahaia oso jabe da toki telebistetan ez dela erraza –eta beraz, ohikoa– hau bezalako produkzio pausatua egitea, eta zentzu horretan, beste tokiko eragile batzuekiko elkarlana ere azpimarratu nahi du, bide interesgarri eta emankorra delakoan. Eraitza, kasu honetan ere, bertako proiektu batetik abiatuta, interes orokorreko eduki atsegina eta erakargarria.

**AIPAMEN BEREZIA:**

**Zumaiaiko BALEIKE agerkariak traineru denboraldian argitaratutako *Tapa Pala* bideo sorta.**

Traineru denboraldian 12 bideo laburrez osatutako sorta egin du Felix Aizpurua arraunzaleak Baleike.eus agerkarian, kirola hobeto ezagutu eta ulertzeko azalpenekin, helburu didaktikoarekin.

Epaimahaiari deigarri egin zaio nola, oso baliabide gutxirekin baina mimo eta kontu handiz, saio ezin duinagoa osatu duten egileek, erakargarria eta oso didaktikoa. Horretan, zalantzarik gabe, asko laguntzen du aurkezleak erakusten duen gaiaren ezagutzak eta komunikatzeko erraztasunak.

Era berean, azpimarratzekoa da produktua zer ondo egokitzen den euskarrira, formatu, iraupen eta eduki aldetik, horrek ere bere kontsumoa errazten duelarik. Epaimahaiaren iritziz, oso modu originala da gai bat bere osotasunean ulertzeko, eta beste gai batzuetarako ere formula egokia izan daiteke.

Azkenik, epaimahaikideek ikusi dute *Tapa Pala* moduko lan bitxiak bide polit eta egingarria erakusten dietela tokiko beste komunikabideei.

Azkenik, epaimahaiak adostu du erabaki hau publiko egitea eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematea.


Hala jasota gera dadin, epaimahaikideek agiri hau sinatu dute Gasteizen, 2016ko urriaren 31n.



Alazne Aiestaran Yarza  
Epaimahaikidea



Golo Arana Arrieta  
Epaimahaikidea



Gaizka Aranguren Urroz  
Epaimahaikidea



Joxe Rojas Granja  
Idazkaria